

Berrigara

BERGARA / Egubakoitz / 2005eko uztailearen 22a

636. zenbakia



BERRIGARA

Basalgoko jaietan ohikoa denez, idi probak egongo dira astelehen arratsaldean, Santiago egunean.

JAIAK/ Meza Nagusia, txirrindulari igoera, dantza txapelketa eta idi probak astelehenean

Santiago jaiak izango dira Basalgon zapatutik aurrera

E.M.

Bihar, zapatua, Santiago jaiak hasiko dira Basalgon. Kanpai hotsen eta etxafuegoen ondoren, makal jasotzea egingo dute 09:00etan. Iluntzean, berriz, bertso afaria izango da, Zeberio eta Mañukortarekin eta Xapre eta Zarra trikitalariekin. Izenematea Iraho eta Mekolalde tabernetan egin daiteke.

SANTIAGO EGUNA ASTELEHENEAN

Domekan, mus txapelketa jokatuko da 16:00etan Basalgoko elkartean eta astelehenean, Santiago eguna ospatzeko hainbat ekitaldi egongo dira: Meza Nagusia 11:00etan, eta 12:00etan gaztetxei zuzendutako Basalgoko Txirrindulari Igoera jokatuko da. Jarraian, 12:30ean, pilota partiduak izango dira: Bergarako pilota eskolako gaztetxoek eta ama-

teur mailako pilotariak jardungo dute. Arratsaldean, sei bikote arituko dira Dantza Txapelketeren XIII. ekitaldian, 17:00etan. Ondoren, idi probak egongo dira: Itziarko Julian Subinos eta Aizarnazabalgo *Amilluta* lehiatuko dira. Iluntzean, erromeria izango da, Xafre eta Zarrarekin.

Azkenik, martitzenean meza izango da 13:00etan eta ondoren lurcha eta umeendako jolasak.

LABUR

Bedelkarreko zozketan 44.631 txartelak 500 euroko erosketa bonoa jasoko du

Bedelkar herriko dendarien elkarteak antolatutako udako zozketan honako hauek izan dira saritutako zenbakiak: 44.631, 73.473 eta 24.462. Lehen sariko txartelaren jabea ez da oraindik azaldu. 44.631 zenbakidun txartelak 500 euroko erosketa bonoa jasoko du. Lehen saria Kabutzia arrandegian banatu zuten.

Udal Liburutegia abuztuaren 8tik 15era itxita eta gainerako egunetan goizez zabalik

Udal Liburutegia itxita izango da abuztuaren 8tik 15era. Gainerako egunetan 08:00etatik 13:30era izango da zabalik.

Uztailean, astelehen eta egunetan 08:00etatik 20:00etara izango da zabalik eta martitzen, eguazten eta egubakoitzetan, 08:00etatik 13:30era. Zapatueta itxita izango da.

Ingurumen Sari Nazionala Mari Karmen Gallastegiri

E.M.

Mari Karmen Gallastegi bergarrak Ingurumen Ministerioko Saria eskuratu du. Garapen jasangarriaren alde, ingurumenaren babeserako lan aipagarria egiten dutenak nabarmentzen ditu urtero Madrileko gobernuak. Gallastegirekin batera, Mario Gaviria, Arturo Larena eta Maria Josep Pico saritu dituzte.

Ekonomia eta Ingurumeneko Lucas Mallada Saria jaso du Gallastegik. Hain zuzen ere, errekurto naturalen gestio ekonomikoaren gainean egindako lanatik saritu dute. Epaimahaiak azpimarratu duenez, "arrantzako errekurtsoen gestioan egindako lana oso inportantea izan da". Ekonomia Zientzietan dok-



ARTIBOIA

Mari Karmen Gallastegi.

torea da Mari Karmen Gallastegi. Cristina Narbona ministroak banatu zituen sariak ekainean, Madrilan.

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35



943 76 20 61
BERGARA



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak

Astra GTC berria

Hain da dinamikoa, begiratu eta gerrikoa
jarri beharko duzu



Begiratu, hori bakarrik egin behar duzu. Opel Astra GTC berria arintasunarekin eta segurtasunarekin mugitzeko pentsatua dago. Ondorengo motorrak: 2.0 Turbo 200 ZP eta diesel CDTI 150 ZPraino, IDS eta Sport Switch sistemak, AFL faro moldakorrak, haizetako panoramiko eksklusiboa, ESP egonkortasunaren kontrol elektronikoa, 6 aire-zaku, abiaduraren kontrola, barruko nabigatzailea, irratia-MP3 eta telefono integratua, 18" aleaziozko haguak. Gidatzean disfrutatzeke behar duzun guztia.
www.astragtc.com.es

GMAC FINANCIAL SERVICES

Proba ezazu 3 egun* konpromisorik gabe ondorengo telefonora deituta 902 21 23 23, edo zure Opel Banatzailean.

Promozio baliagarria 2005eko maiatzaren 7tik ekainaren 30era. Probak egingo dira banatzaileek modelo honetako autoa prest baldin badute. Ondorengoentzako baliagarria: banatzaileen sarearentzat eta promozio honetan parte hartzen duten Espainiako Opel Salmenta Ofizialeko Agenteentzat. Notario aurrean utzitako oinarriak eskuragarri. Irakurri ondo, mesedez, autoa erabiltzeko dokumentuan agertzen diren baldintzak. Astra Gama GTC. Kontsumoa (l/km) mistoa 4,8tik 9,3ra. CO₂ emisioa (gr/km) 130etik 223ra.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. **ARRASATE**
www.giauto.es

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:
Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. **BERGARA**
www.giauto.es

JAIK/ Ohikoa denez udal korporazioko kideak kalejiran joan ziren udaletxetik Santa Marinaraino

Santa Marina ospatzeko meza, korporazioaren parte-hartzearekin

E.M.

Santa Marina eguna ospatzeko, Meza Nagusia izan zen astelehen arratsaldean. Jende ugari elkar-tu zen parrokiaren, eta, ohikoa denez, udalbatzarreko kideak kalejiran joan ziren udaletxetik Santa Marinaraino. Victoriano Gallastegi alkatearekin batera, EAJ-EA koalizioa hainbat zinegotzi eta Javier Garai PSE-EEko ordezkariak hartu zuten parte asteleheneko ekitaldian. Eta udalbatzaren aurretik, Udal Txistulari Bandako kideak eta mazerak. Juan Garitano eta Iñaki Labaka atera ziren mazer jantzita. Azken orduan Garitano EAJ-EAko zinegotziak Bittor Satorretxe ordezkatu zuen.

ONDAREA IKUSGAI JARRIKO DUTE

Bestalde, Santa Marinaraino egindako berrikuntza lanek 2.100.000 euro inguruko aurrekontua izan dute. Diputazioak, Jaurlearitzak eta Donostiako Gotzaindegiak ordaindu dituzte lanok. Udalaren erantzunaren zain daude Santa Marinaraino arduradunak.

Udazken aldera Sakristau Etxea zabalduko dute, parrokiako ondarea erakusteko. Hurrengo urteetarako ildoak ere zehaztu ditu parrokiak.



EAJ-EA koalizioa hainbat zinegotzi (alkatea tartean) eta PSE-EEko ordezkaria joan ziren Santa Marinaraino elizkizunera.



Udal Txistulari Banda eta udalbatza, San Martin plazatik Barrenkalera bidean.



Juan Garitano eta Iñaki Labaka mazer jantzten, Roberto Izagirrenen laguntzarekin.

LABUR

Odol ateratzea eguaztenean Seminarioan

Bergarako Odol Emaleen Elkarteak aditza eman duenez, hurrengo odol ateratzea eguaztenean, uztailaren 27an, egingo dute Seminarioan, ohiko ordutegian.

Abuztuan bi izango dira, hilaren 10ean eta 24an, hain zuzen. Odol emaleei bertara joateko dei egin diete elkarteko arduradunek.

Igeri Elkartean zozketan 8.842 zenbakia sarituta

Bergara Igeri Elkartean egingo zozketan 8.842 izan da saritutako zenbakia.

Txartelaren jabeak bi sari izango ditu aukeran: 1.500 euro edo Donostiako Aste Nagusian astebeteko egonaldia Costa Vasca hotelean. Donostiako egonaldia aukeratu gero, jatetxe ezagun batean afaldu edo bazkaltzeko aukera izango du sarituta.

Saria eskuratzeko Bergara Igeri Elkartekoengana edo 943 76 00 04 zenbakira jo dezake txartelaren jabeak.

Arantzazura erromesaldia astelehenean

Arantzazuko santutegira erromesaldia egingo da astelehenean, uztailaren 25ean, goizez. Eguerdian Meza Nagusia izango da Arantzazuko basilikan eta 14:00etan bazkaria.

Bergaratik autobusa aterako da, 09:30ean, autobus geltokitik. Txartelak 6 euro balio du eta bazkarirako txartelak 16 eurotan daude salgai Agirrebeñan (San Antonion), Zerkauzin (Ozaetan) eta Barrenkalera Zatoia dendan.

Astelehen arratsaldean Loiolako santutegira joateko aukera ere izango da; Arantzazutik Loiolarako autobusak 17:30ean aterako dira.

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak orokorrean

• Pintura industrialak

• Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82

610 25 40 37

943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Jose M. Martín


pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a

ANTZUOLA

Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.

Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura



Fo Fo Fo eta Tito's Getokuak taldeko jokalaria, egubakoitzeko finalaren ostean.

FUTBOLA/ Kopako txapelketa A Ze Flaxak eskuratu du, Santana Riverri 1-0 irabazita

Partiduari buelta eman eta Fo Fo Fo taldeak 3-2 irabazi zion Tito's taldeari Ipintzako finala

BERRIGARA/A.G.

Fo Fo Fok irabazi du aurtengo Ipintzako futbol txapelketa. Finalean 3-2 nagusitu zitzaion Tito's Getokuak taldeari. Kopa txapelketa, berriz, A Ze Flaxak eskuratu du. Bukatu da Ipintzako 23. ekitaldia. Maila ezberdinetan 600 bat jokalarik hartu dute parte.

Egubakoitzean jokaturako finalean, ez zen emozioa falta izan. Tito's Getokuak taldea aurreratu zen markagailuan, Joseba Herran eta Andoni Ibaibarriagak egindako golei esker. Hala ere, elgetarrek buelta eman zioten partiduari: lehen zatiaren amaie-

ran, Mikel Juaristik egin zuen Fo Fo Foren lehen gola. Koldo Eros-tarbak binakoa egin zuen penalti jaurtiketa bati esker eta partidua amaitzeko hamar minutu falta zirela, garaipenaren gola egin zuen Mikel Ormaetxeak.

Elgetako lagun dezente etorri ziren egubakoitzeko finalera, eta haien animuak ere lagungarri gertatu zitzaizen jokalariei. Amaieran, txanpan eta guzti ospatu zuten garaipena. Poz pozik zebiltzan elgetarrak.

HIRUGARREN FINALA FO FO FOK

Ipintzako txapelketako azken hiru ekitaldietan finalera iritsi da Fo Fo Fo taldea. Joan zen urtean penaltietan galdu zuten, baina

orain bi urte lortutako trofeoa berreskuratu dute aurten. Tito's Getokuak taldeak nahiko lan eman zien elgetarrei egubakoitzeko finalean. Txapelketa bikaina egin dute bergarrek ere. Txapeldunordeari zegokion trofeoa eskuratu zuten.

Bestalde, kopako finalean, A Ze Flaxa Galways taldeko betanoek Santana River taldeko gazteei irabazi zieten, 1-0. Unai Agirrek egin zuen partiduko gol bakarra, penaltiz. Era berean, txapelketako jokalaria onenaren Berrigara trofeoa jaso zuen Agirrek. Imanol Cabanillas bere taldekidea izan da golegilerik onena eta Hotel Ormazabal taldeko Unai Irazola atezainik onena.

Aurtengoa txapelketaren 23. ekitaldia izan da. Maila guztiak kontuan izanik, 600 bat jokalarik hartu dute parte.


Puntu negatibo bakarra azken txanpan iritsi da. Angiola taldeak uko egin zion finala jokatzeari. Taldeko hainbat antzuolarrak dira eta Antzuolan egubakoitzean jai eguna zenez, finaleko eguna aldatzea eskatu zuten. Antolatzaileek ez zuten eskaera onartu. Bestalde, epaile aritzeko jendea lortzeko zailtasunak dituztela adierazi du antolatzaileek.

ZOKKETAN 176 ZENBAKIA SARITUA

Ipintzako zozketan, 176 zenbakiak Zumelagan lau lagunendako afaria irabazi du.



ANTOLAKETA
Jose Luis Beitiari omenalditxo bat ematen. Silvia Valorrek eman zion saria.




ANTOLAKETA

Jokin Arantzabal txapeldunen koparekin. Karlos Etxanizek eman zion saria.



ANTOLAKETA

Tito's Getokuak taldeko Unai Bilbao Igor Larrañagarekin.



ANTOLAKETA

Unai Agirrek jaso zuen BERRIGARA trofeoa, Edu Mendibilen eskutik.



ANTOLAKETA

Unai Irazola izan da atezainik onena. Igor Untzurrunzagak eman zion saria.



ANTOLAKETA

Edu Agirre txapelketako betaranoa Jose Luis Beitia antolatzailearekin.

MUSIKA/Euren abestietan, swing, txa-txa-txa eta bolero doinuek jazz pasarteekin bat egiten dute

Teresa Zabaltza 5et gaur Espoloian, 'Udako gauak' kontzertu sortarekin bukatzeko

EDU MENDIBIL

Teresa Zabaltza 5et taldeak amaiera emango dio gaur, egubakoitza, *Udako gauak* programako jazz emanaldi sortari. Teresa Zabaltza eta haren taldekideek *Euria* izenburuko diskoa aurkeztuko dute Espoloiko kioskoan, 22:30ean.

Musika klasikotik zelanbait aldentzeko asmoz, Teresa Zabaltza piano jole iruindarrak Barzelonara jo zuen duela urte batzuk. Bertan, London Jazz Sextet, Q-Bop eta Musika Tailerreko Big Band proiektuetan aritu ondoren, hainbat musikarirekin topo egin eta bere abestientzako talde egokia aurkitu zuen. Hain zuzen ere, Alejandro Mingot (gitarra), Miguel Villar *Pintxo* (saxo tenorea), Josu Izagirre (kontrabaxua) eta Hasier Oleaga (bateria) dira bere taldekideak. 2004ko

neguan *Euria* izeneko diskoa kaleratu zuten eta aipatutako lanean Carme Canela kantariak hartu zuen parte. Diskoan bi urtean zuzenean jorratutako lana bildu du Zabaltzak.

JAZZ PASARTEAK

Swing, txa-txa-txa eta bolero doinuek bat egiten dute jazz pasarteekin euren abestietan. Zabaltzak azpimarratzen duenez, "taldeko %20 baino ez naiz. Abestiak nireak dira, gustatzen zaizkit, baina nik baino askoz gehiago dute esateko taldekideek beren tresnekin. Ondorioz, tarte handia uzten diet jotzeko". *Sencillos deseos*, *Tximeletak* eta *Sapos y culebras* dira abestietako batzuk. Bestalde, bat-batekotasunak ere zeresan handia dauka gaurkoaren moduko zuzeneko emanaldietan.

Getxoko Jazz Jaialdian eta San Fermin jaietan izan ondoren, Bergaran izango dugu gaur Teresa Zabaltza 5et.



Teresa Zabaltza 5et taldeko kideak.

GAZTELUPEKO HOTSAK

Mireia Gabilondo zuzendari lanetan 'Kutsidazu bidea, Ixabel' filmean

E.M.

Mireia Gabilondo bergararrak zuzendari lanak egingo ditu *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filmean. Astelehenean hasi ziren filmatzen, eta Gabilondo eta Fernando Bernues izango dira zuzendariak. Aktore lanetan Iñaki eta Xabier Zapiain, Iñake Irastortza, Juan Luis Ugartemendia, Aine-re Tolosa eta Mikel Losada izango dira. Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* eleberriararen eta ondoren egindako antzerki lanaren aldean, pertsonaia eta argumentu berriak izango ditu filmak. Zortzi bat astean filmatuko dute, milioi bat euro inguruko aurrekontuarekin. Abendu parterako filma estreinatzeko gertu izango da.



BERRIGARA

Mireia Gabilondok eta Fernando Bernuesek zuzenduko dute filma.

LABUR

San Martin jaietako danborradarako bandera eramaileak behar dituzte

Udaleko Kultur Zerbitzuak aditzera eman duenez, bandera eramaileak behar dituzte San Martin jaietako danborradarako. Banderak eramateko gertu diren 15-20 urte bitarteko gazteek kultura etxean, 943 77 91 60 telefonoan eman dezakete izena.

Eduardo Arrillagaren 'Sokamuturra' argazki erakusketa Aroztegin ikusgai, domekara arte

Eduardo Arrillagaren *Sokamuturra* argazki erakusketa ikusgai dago Aroztegin, domekara arte. Aste barruan 18:30etik 20:30era eta zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era izango da zabalik. Domekan, berriz, 18:30etik 20:30era.

Gazta dastatze ikastaroa izango da datorren irailaren 8an, kultura etxean

Gazta dastatze ikastaroa izango da irailaren 8an, 19:00etan. Ikastaroa euskaraz izango da. Plaza mugatuak dira. Gehienez, 25 lagunek parte hartu ahal izango dute. Izena emateko epea irailaren 6ra arte zabalik. Argibideak 943 77 91 59 telefono zenbakian.

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

Dixula

BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

UREDERRA


ITURBINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45



JAUJA
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

ZAHARRAKBERRI



BERRIGARA

Josteko lanetan jarduten dute batez ere eskulenen ikastaroan Arantzazu Lizarralderekin.

San Joxepeko ikastaroak irailaren 19an hasiko dira, oporren ostean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ikasturtea amaituta oporretan dira erretiratuak. Urtean barrena egin dituzten ikastaroekin atseden hartuko dute, irailean berriz indarberrituta hasteko.

Irailaren 19an ekingo diote ikasturte berriari San Joxepe elkartearen; eta oraindik egunak zehazteke badaude ere, aste horretan barrena lehen eskolak izango dituzte.

Sasoian egoteko gimnasia, yoga, eskulan eta pintura ikastaroak izango dira, orain artean bezala. Gimnasiako monitorea Udalak jarriko du; Jose Luis Armendia arduratuko da yoga eskolak emateaz; eskulanetan Arantzazu Lizarraldekin jardungo du; eta Jose Antonio Laskurainek pinturako taldean. Taldeak 15 lagunekoak dira; eta pinturakoan hamar egongo dira.

San Joxepetik esan digutenez, izena ematen dutenek irailaren 15erako ordaindu beharko

dute ikastaroaren zenbatekoa. Bestela, parte hartzeko zain dardenei utziko diete lekua.

INFORMATIKA

Bestalde, ikasturte berrian informatika ikastaroak ere egongo direla jakinarazi digute San Joxepetik. Hala ere, ordenagailuak zahartu egin direnez, oporretan aldatzekoak dira. Beraz, oraindik ez dute zehaztu ikasturte berrian zein informatika ikastaro egongo diren, ezta noiz hasiko dituzten ere.

LABUR

Erretiratuak Donostiara joango dira abuztuan, suak ikustera eta atletismo txapelketara

Abuztuan San Joxepeko ohiko jardunetan etena egingo badute ere, izango da ekintzaren bat edo beste. Donostiako Aste Nagusian Gipuzkoako hiriburura egingo dute txangoa erretiratuek, su artifizialak ikusteko. Oraindik erabakitzeke daukate egun zehazta zein izango den, baina San Joxepen bertan ipiniko duten ohar baten bidez jakinaraziko dute. Bestalde, San Joxepe elkarteak 28 erretiratutako boluntario lanetan jardungo dute abuztuaren 22an hasiko den Beteranoen Munduko Atletismo Txapelketan. Antolakuntza lanetan lagunduko dute.



Santa Marinako jaietako txapeldunak

Santa Marina auzoko jaien aitzakian hainbat joko antolatu zituzten San Joxepekoek erretiratuendako. Lehian ibili ostean, honako hauek izan ziren txapeldunak. Tutean Jose Agirrek eta Esteban G. Arroiabek osatutako bikoteak irabazi zuen; musean Uribe txeberria eta Aldaik osatutakoa eta briskan Antoniok eta Crispinek irabazi zuten azken partida. Felix Garciak billarrean eta igelaren jokoan erakutsi zuen bere maisutasuna. Tokan Antolin Martxena izan zen irabazle eta, azkenik, bola jokoan Markos Labaien.

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urdete 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS

TIEN 21

Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Aldoka
Maldoka

TABERNA


Kruz Gallastegi
BERGARA

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behe. Bergara
943 76 55 00

MINGAINARITIRAKA



Juanje Amasorrain

KIÑU ARGAZKI DENDAKOIA

Orain dela 22 urte zabaldu zuten Kiñu argazki denda. Auskalo zenbat *klik* eta *kiñu* egin duen ordutik Juanjek. Ez gara argazkirik ateratzera joan, baina, argazkietan ondo ateratzeko aholkua ere eskatu diogu, besteak beste.

Lehenago ezkontza baten ikusi zintudan, argazkilari. Zenbat egiten dituzue urtean?

Ez ditut sekula kontatu, baina, ezkontza garaian, maiatzetik urrira, ia astebururo lan egiten dugu.

Zer da zure lanean gehien gustatzen zaizuna? Jendearekin egotea.

Eta gutxien?

Dena gustatzen zait; bueno, batzuetan, ordu asko sartzen ditugu. Ni oso gaizki ateratzen naiz argazki gehienetan. Ze aholku emango zenidake?

Lasai egotea, norbera den bezala azaltzea da garrantzitsuena. Ez zaituz sekula posatzen saiatu.

Zeini egingo zenioke *book* bat?

Edozeini, parean pasatzen den edozeini.

Eta nora joango zinateke argazki erreportaje bat egitera?

Trasterik traban ez dagoen toki zabal batera. Australiara joan nahi nuke, baina argazkiak egitera baino turismoa egitera.

Kanpora irtetean, zenbat karrete eramaten dituzu?

Soberan; 500 argazkitik gora ateratzen dut bidaia luzeetan.

Betiko kamerak edo digitalak nahiago?

Digitalak; ia derrigortuta hartu ditugu eta ohitu egin gara.

Zenbat album dituzu etxean?

Gutxi; ez daukat albumak osatzeko astirik. Argazki mordoa daukat gordeta, hori bai, baina ez albumetan.

Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?

Mendira joatea. Aralar aldea, adibidez, asko gustatzen zait.

Oporretarako planik badaukazu?

Ez; azkeneko momentuan pentsatuko dugu zerbait.

Haserrarazten zaituen zerbait?

Gizatasun eta sentsibilitate gabeziak.

Eta pozten zaituena?

Gauza txikiek, simpleek.

Amets bat?

400 metroko horma bat eskalatzea; ala deltan hegan egitea ere bai. Beldurra ematen didate horrelakoek, baina inbidia ere bai.

AINZANE IRIZAR

KANPOTARRAKBERGARAN

ABDELKRIM AARAF

42 URTE / MAROKOARRA / ORAIN DELA LAU URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Egonkortasuna bilatzen dugu eta etorkizuna hementxe eraikiko dugula espero dut”

AINZANE IRIZAR

Hamabost urte daramatza Abdelkrim-ek Marokotik kanpo bizi izaten. “Ikasketak nituen arren, ez nuen lanik topatzen. Gainera, soldadutza egiteko deitu zidaten eta ez nuen joan nahi”, gogoratzen du. Horrela, Kanariar irletara joan zen lehenengo; hasiera bateko asmoa, baina, Italiara joatea zen: “Nik buruan neukana zen Italiara joatea, baina, nire aita Espainian bizi zen, eta hark aholkatu zidan Espainiara joatea”, azaldu digu.

Kanariar irletan urte batzuk egin zituen; hantxe, itsasoan jardun zuen lanean, arrantzale. Gero, Galiziara joan zen bizi izatera, eta han ere, itsasoan ibiltzen zen lanean; baita bestelakoetan ere.

Orain dela lau urte iritsi zen Bergarara lehenengoz: “Galiziako enpresa batekin etorri nintzen Bergarara, autobidea eraikitze-ko lanetara; umeak eta emaztea ere etorri ziren, eta hementxe bizi izaten geratzea erabaki genuen”, diosku.

Osintxun bizi da Abdelkrim, emaztearekin eta hiru seme-alabekin: hamasei urteko mutila eta bederatzi eta sei urteko bi alaba. “Zaharrena orain dela gutxi iritsi da eta oraindik ez da hemengo bizi-modura egokitu, baina bi txikiak oso gustura daude”.

Ikasten jarraitzen du Abdelkrim-ek; Miguel Altuna institutu-
tuan dihardu. Bere nahia da ikasketak bukatu eta herriko lantegiren baten lana topatzea.

Hasiera-hasieratik ondo hartu ditugula azaldu digu Abdelkrim-ek: “Sekula ez dugu arazorik izan; beste toki batzuetan arrazakeria badago eta begirada txarrak eta irainak jasan behar izan ditugu; hemen, baina, bakean bizi gara. Nork bere bizimodua egiten du eta guri geurea egiten lagatzen digute”.

Osintxu bereziki gustatzen zaie Abdelkrim eta bere familia-koei: “Oso herri lasaia da, eta gustura bizi gara”.

“Hemen, nork bere bizimodua egiten du eta guri geurea egiten lagatzen digute”

Ahal duten guztietan, automobila hartu eta inguruko herri eta hondartzetara joaten dira: “Asko gustatzen zaigu Euskal Herria”.


EUSKARA IKASTEN

Euskara ikasten dihardu Abdelkrim-ek. Seme zaharrenek 16 urte ditu eta oraindik ez du euskara ikasi. Bi neskatilek, ordea, ondo berba egiten dute.

Etorkizuna hemen ikusten dute: “Galiziako enpresarekin lanean jarraitu izan banu, auskalo orain non biziko ote ginatkeen! Nik egonkortasuna bilatzen dut, ez dut nahi beti hara eta hona ibiltzerik. Gainera, seme-alabek ere egonkortasun beharra dutela uste dut. Horregatik, etorkizuna hementxe eraikiko dugula espero dut”, adierazi digu.

FAMILIA ETA HERRIA

Herri-min pixka bat izaten dutela azaldu digu: “Emazteak, batez ere, familiaren hutsunea nabaritzen du; haren gurasoak Marokon bizi dira. Nire gurasoak eta familia, berriz, Galizian bizi dira eta noizean behin joaten gara bisitan”. Marokora ez dira joan azkeneko lau urtetan.



IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

AGIRRE

% 50

Bidekurutzeta 18 • 943 76 72 67

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

BONOFOTOA

Ze lekutako sarreratik aterata dago kale honen argazkia? Eta zein da kalearen izena?



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



Super BM emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

NORA BLANCOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Nora!
Galderaren erantzun zuzena: **Gorla**.



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA.....

San Miguel garagardoa

12x25 cl-ko packa

3,60 €

599 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

**OÑATI
1986-87 ikas-
turte amaie-
rako argazkia**

Argazki honek 18 urte ditu. 1987an atera zuten, ikas-turte bukaeran Santa Lutzia eta Berezaio aldera egindako arratsalde pasa batean. 13 urteko neskatila haiek zortzigarren maila egiten hasiko ziren oporren ostean, Benediktinetan.

Goiko ilaran, ezkerretik esku-mara: Oihana Elortza, Nerea Arregi, Amagoia Garcia de Cortazar, Lierni Urtzelai, Marta Madina, Miren Lasa, Idoia Arkauz, Estibaliz Martinez, Arrate Odriozola eta Elena Igartzabal.

Erdikoan: Arantzazu Olalde, Amaia Navarro, Urrategi Beitia, Izaskun Urteaga, Susana Urmeneta, Maite Elortza eta Esther Arbelaitz.

Behekoan: Edurne Otxoa, Ainhoa Irizar, Ana Elena Krenstock, Susana Aiastui, Nekane Murua,



Estela Biain, Ainhoa Markuleta, Nerea Arregi, Itsaso Madinabeitia, Itziar Egiguren eta Nerea Altzelai.

Argazkia: Oihana Elortza

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 22**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15
- ZAPATUA, 23**
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- DOMEKA, 24**
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 25**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15
- MARTITZENA, 26**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 27**
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- EGUENA, 28**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

- Antulutorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emailleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRIAOK

- Taxiak 943 76 19 50

UDALA

- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notarioa 943 76 10 73

MEZAK

URTE-MEZAK

- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00
eta 20:40.
- GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Kondel), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.


ATREBENTZIAEZPADA/ Udako oporretan herritik kanpora joango zara?



LOLI CONDE



ISABEL VALLEJOS



MIREN ROJO



IÑAKI ZENGOTITA



PEDRO MURILLO



JON AGIRIANO

Momentuz ez, lan egin behar dudalako, baina aste bat libre izanez gero, agian Galiziara joango gara. Gai-nontzean, Donostiako Aste Nagusira edo Gasteizko zein Bilboko jaietara joa-teko aprobetxatuko dut.

Oraindik ez dut erabaki nora, baina joango naiz non-baitera. Nire asmoa zen Murtziara joatea oporretan, baina urruti dago eta hamar egun baino ez ditu-danez, beharbada Galizia-ra joango naiz.

Hemen gelditzerik behin-tzat ez dut uste. Seguru aski Caceresera joango naiz. Abuztuaren 12an hartzen ditu oporrak senarrak eta bitartean hemen ibiliko naiz, herrian zeregin asko-rik ez badago ere.

Hemen geldituko naiz. Kan-pora joan gabe hemen ere bada planak egiteko modu-rik. Kanpora joanez geró, kanpinean joaten gara eta hemen etxean lo egin arren hondartzara, mendira... irten gaitezke.

Kanpora joango naiz abuz-tu guztia pasatzera. Nahi-koa lan egin dut urtean barrena eta Malaga aldera joango naiz, hondartzara, egunerokotasunetik ihesi eta eguraldi onaren bila, hemen ez da ziurra eta.

Ez dakit oraindik. Guraso-ek ez didate esan kanpora joango garen ala ez. Hala ere, niri berdin zait hemen geldituta ere. Igerilekura, hondartzara edo lagunekin bizikletan ibiltzera joango nintzateke.


TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ERROTALDEKO BANKUAK Irakurle batek esan digu Erro-talde jauregiaren kanpoko aldean dauden bankuak oso egoera kas-karrean daudela. "Bankuetako batean burdinezko egitura baino ez da geratzen, eta besteari egur batzuk falta zaizkio. Toki egokia da lasai jarrita egoteko, eta ez legoke gaizki banku berriak ipintzea". /A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Patxaroso"



Patxara onekoa.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“ Eleberrian eta antzerkian baino istorio gehiago dago filmean. Eta estilo aldetik ere oso

desberdina izango da. Filmean kutsu errealista izango du istorioak, antzerkian ez zeukana. Baserritarren diren bezalakoak agertuko ditugu; antzerkian exageraziora jotzen zen eta oso ondo zegoen, nik izugarriko barreak egin nituen, baina guk ez dugu estilo horretan egingo. Hala ere, bi munduen arteko kontrastea agertuko da. **Kutsidazu** oso istorio unibertsala da. Eta kanpora begira azpituatu egingo dugu, umore linguistiko handia baitu, eta bikoiztean galdutako egingo luke”
MIREIA GABILONDO / 'Kutsidazu bidea, Ixabel' filmaren zuzendaria 'Berria'/05-07-15

BERAIEKDIÑO/ Maite Aristegi



Turistak Debagoienean

Epa, Joxepa! Berriz be bazabiltza hor munduan bazterrean, ahoskatu ezindako moduko parajeren baten! Zu beti berri bila eta bertan egon baina nahikua!

Badakizu, egun gutxi barru herrixa erdi hustuta geratuko da. Eta zelako gozamenen, frontoi inguruan trankil aparkau eta kale hutsetatik buelta bat emotea! Harik eta turistaren batekin trink egin arte. Baietz, mordo bat dabilzala! Gauzak famatu eta famatu gabiltza eta gero etorri egiten dira. Eta geuk hortan gehixegi sinisten ez dogunez, dana itxi eta jospa hemendik! Eta ez dakizu zenbat frustazino sortzen dogun!

Beti, itxita dagon dendaren bateko jantzi edo traste huraxe erosi nahiko ginuke. Eta gauza bat da eliza gehienak ixtea, baina taberna eta jatetxeak? Hainbeste euskal sukaldaritzak kontu entzunda etorri eta gero goardiako dendaren baten

erosittako bokadiloa jan behar!

Baina, eurekin ikasten dozuna? Ea nork ez daben jarri lelo aurpegixa Jauregi etxearen detaile guztiak edo Agirre-beña eta Arrese etxien balkoi ederrez entzutean. Badakizu, bertan euki eta begiratu be ez.

Edo folklore edo gauza tipikoak eskatzen dituztenean jorratu behar dan irudimena.

Eta turistak gidatzean lantzen dan pazientzia? Zela ailegau ez dakit nungo nekazal turismo hartara, edo zailagua oindio,

adibidez, nundik sartu bailarako birika gunera, Urkulura? Izan be seinaleetan ez dogu gehixegi gastatzen.

Beno neska, esandakua. Hemen ez dagola aspertzeko astirik. Izan be, ia zer bailarak daukan urtero mirarixa egitten daben santu pareak: Maritxu Kajoi eta umilagua baina aurten be txintxo bere asfaltotxoa ekarri doskun San Martzial. Ondo pasau oporrak!

HAUGIROA!

MINIMOA 11°C
Eguaztena, 13

MAXIMOA 39°C
Eguena, 14

ASTEKO EURIA (l/m²) 1,1 L

| | Max. | Min. | Euria |
|-----------------|-------|-------|----------------------|
| Eguaztena, 13 | 33 °C | 11 °C | - l/m ² |
| Eguena, 14 | 39 °C | 12 °C | - l/m ² |
| Egubakoitza, 15 | 32 °C | 19 °C | 0,1 l/m ² |
| Zapatua, 16 | 29 °C | 19 °C | - l/m ² |
| Domeka, 17 | 28 °C | 15 °C | 1,1 l/m ² |
| Astelehena, 18 | 25 °C | 15 °C | - l/m ² |
| Martitzena, 19 | 26 °C | 15 °C | - l/m ² |

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldeg
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 22a / 254. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

ELKARRIZKETA

JOSE ANGEL FERNANDEZ/AKE-KO PRESIDENTEA

“Gure lehentasuna da erregional mailako taldeari indarra ematea”

A.I.

Zortzi urte daramatza Jose Angelek AKE-n. Kadeteen eta gazteen entrenatzaile dihardu ordutik hona, eta azkeneko bi denboraldietan elkarteko presidentea da. Aurreko eta hurrengo denboraldien gainean berba egin dugu.

Bukatu den denboraldia zela baloratzen duzu?

Historikoa izan dela esango nuke, bi titulu eta igoera bat lortu ditugu eta. Kadeteek kopa irabazi dute; gazteek, berriz, lehen mailara igotzea lortu eta liga txapelketa irabazi dute. Gainera, kontuan hartu behar da nahikoa lan izan gure bost taldeak osatu eta aurrera ateratzeko, eta baliabide mugatuak ditugula.


Gazteek lehen mailan jokatu dute, baina talde berria izango duzue.

Bai; bost jokalaririk bakarrik geratuko dira iazko taldetik. Gainerakoek lehenengo urtea izango dute gazte mailan. Bestalde, gure asmoa da kanpotik bost bat jokalaririk ekartzeko; Urola taldekoekin harremanetan gaude horretarako.

Datorren denboraldiari begira, ze lehentasun dituzue?

Gure lehentasuna da erregional mailako taldeari indarra ematea; lehenengo helburua izango da igoera faserako sailkatzea eta gero, igoera lortzea. Horretarako oso talde ona daukagu; batetik, iaz gazte mailan jokatu-tako jokalaririk asko ditugu erregional mailan, eta bestetik, azkeneko urteotan kanpoan jokatu-tako edo futbola lagata egon diren asko hasiko dira berriro talde nagusian. Bizpahiru urterako taldea eginda daukagu.

Entrenatzaile berria ere izango dugu, Jose Luis Sexto arrasatearra, hain zuzen ere. Estatu mailako entrenatzaile titulua dauka eta eskarmentu handikoa da, talde asko entrenatu ditu.



A.I.

Belarrezko futbol zelaia, noizko?

Ez dakit; orain dela gutxi saiakera bat egin dugu. Urola taldearen Argixao zelaia berri behar dutela eta, hango belar artifiziala Antzuolara ekartzeko aukera aztertzen ibili gara. Azkenean, baina, aloratu egin dugu ideia hori, garestia zelako eta belarra ez zegoelako egoera onenean.

Dena dela, Udaleko ardura-dunek esan digute aztertuko dutela Eztalan belar artifiziala jartzeko aukera.

Batzar orokorrean ze gairi landu dituzue?

Gai garrantzitsuena eta arazo gehien ematen dizkiguna da

“Jokalariei 60 euroko kuota ezarriko diegu eta bazkideena igo egingo dugu”

jendearen beharra. Zuzendari-tzan, esaterako, bost lagun geunden eta bik laga egin dute. Bestalde, entrenatzaile eta delegatuen beharra ere badaukagu. Delegatuen arazoari irtenbidea emateko erabaki bat hartu dugu;

inor ez bada prest agertzen, zozketa bitartez, jokalarien gurasoak izendatuko ditugu delegatu, erregionalen kasuan izan ezik.

Azkenik, aurrekontuaren igoera izango da beste puntu garrantzitsu bat. 30.000 eurokoa izango da aurten. Igoeraren arrazoia da jokalaririk gehiago izango ditugula eta hainbat entrenatzaile eta jokalaririk kanpotik ekarri beharko ditugula. Horrekin lotuta, erabaki dugu jokalariei kuota bat ezartzea: urtean, 60 euro. Bazkideen kuota ere igo egingo dugu; gaur egun, 15 eurokoa da eta datorren denboraldian, 20 euroko kuota ezarriko dugu. Guztira, 180 bazkide ditugu.

LABUR

‘Zinea izarpean’ egitarauko azken filma, gaur

Gaur, egubakoitza, eskainiko dute *Zinea izarpean* egitarauko seigarren eta azkeneko filma. *Amelie*, hain zuzen ere, ikusteko aukera izango dugu gaur gauean, 22:30ean, frontoi txikian.

Jean-Pierre Jeunet zinema zuzendariarena da komedia erromantiko hau, eta Parisen gertatzen da kontakizuna. Aktoreak dira, besteak beste, honako hauek: Audrey Tautou, Mathieu Kassovitz, Rufus eta Maurice Bénichou.

Buztinzuriko lanak lehiaketa publikora

Antzuolako Udal Etxegintzak Buztinzuriko kalearen eraberritze-lanak egiteko lehiaketa publikoa abiarazi du. Uztailaren 11n, baldintza-plegua onartu zuen elkarteko administrazio kontseiluak eta lanak lehiaketara ateratzea erabaki. Irailaren 6ra arte egongo da proposamenak aurkezteko epea.

Hiru hilabeteko epean bukatu beharko ditu lanak enpresa irabazleak; aurrekontua, berriz, 131.469 euro izango da.

Udaletxeak ordutegi berria izango du abuztuan

Datorren hilabetean, abuztuan, ordutegi berezia izango du udaletxe bulegoak. 08:00etatik 14:00etara egongo da zabalik. Ekainean eta uztailan, 08:00etatik 15:00etara egon da zabalik, eta irailan ere ordutegi horixe izango du.

Bestalde, aipatzekoa da Udal Liburutegia itxita egongo dela abuztuan; uztailaren 29ra arte, azkeneko hilabete honetan bezala, goizez egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00etara. Egun horretatik irailaren 5era arte, berriz, itxita egongo da.

JAIK

Giro ona eta jende dezente ibili da jaietan, baina kalte ugari egin dituzte kaleetan

A.I.

Orain dela urte batzuetako jaiak ez diren arren, jende dezente ibili da aurten. Giro ona izan dugu nagusi, baina kaleko hainbat tokitan kalte ugari sortu dituzte ezezagun batzuek: farolak apurtuta, automobiletan hainbat kalte... Dena ez da jaiak izan.

Zoritxarrez, ohikoa bihurtu zaizkigu jaietako kalteak. Aurten ere, nahiz eta iaz baino gutxiago izan diren, kalte ugari eragin dituzte. Beheko auzoan, esaterako, farola bat eta errepideko seinale bat ikusi genituen errekan. Baita jolastokiko lurreko goma zatiak eta aldamiok ere. Eta, zela ez, edalontzi eta zikinkeria ugari.

Sagasti auzoan ere, hainbat farola azaldu ziren apurtuta. Aparkatuta zeuden hainbat automobili atzera-ispiluak eta matrikula plakak hautsi zizkieten.

Eguzki auzoko markesina, berriz, kristal barik azaldu zen.


Bestalde, euren tokitik aterata azaldu ziren herriko lorategietako hainbat lore.

ESKERRIK ASKO, GUZTIEI

Mairuaren Alardearen Kultur Elkarteke presidente Jose Luis Kortabarriak idatzi bat helarazi digu; hantxe, aurtengo alardean parte hartu duten eta euren laguntasuna eman dieten herritarrei eskerrak eman nahi dizkiete.

HERRI AFARIA BERTAN BEHERA

Zapatu gauerako txosna batzordeak antolatutako herri afaria bertan behera geratu zen. Afaria ekarri behar zuen enpresakoek domekan zela uste zuten. Hala ere, 23:30ean alderako janaria ekarriko zutela esan zieten antolatzaleei, baina Zurrategira joan beharrean frontoira joan ziren, eta han inor ez zegoenez, alde egin zuten. Txartelak zituztenei dirua itzuli zitzaion, eta oraindik ere badago horretarako aukera. Antolatzaleek barkamena eskatu nahi diete guztiei.



Beheko eta Sagasti auzoetan hainbat farola apurtu dituzte.

LABUR

Presoen lagunen zozketan, 898 zenbakia irabazle

Herriko jaietan Presoen Lagunen antolatutako zozketan, 898 zenbakidun txartela atera da irabazle. Urdaiazpiko bat, gazta bat eta bi botila ardo jasoko ditu irabazleak. 898 zenbakidun txartelaren jabeak presoen lagunen batengana jo dezake.

Anelkarren zozketan, berriz, honakoak izan dira zenbaki sarituak: 1.642 eta 1.530. Lehenak nekazal turismoan asteburua irabaziko du; bigarrenak, janari otarra.

Jaien gaineko balorazio batzarra, atzo, eguena

Atzo, eguena, egitekoak ziren herriko jaien balorazioa egiteko batzarra. Horretarako, hainbat elkartetako kideek osatutako batzordea elkartzeko zen, Udaleko ordezkariekin batera. Aurreratu daiteke nahiko jende ibili dela jaietan eta balorazio ona egiten dutela antolatzaleek.

Aipatzekoa da, bestalde, 40.365 euroko aurrekontua izan dutela aurtengo jaiak. Aurreko urtetako jaien antzerako aurrekontua izan da aurtengoa ere.

Txapela lortzeko atarian geratu zen Mendizabal

Aurreko asteko egubakoitz gauean, Itziarke lau t'erdiko txapelketako finala jokatu zuen Aitor Mendizabalek. Elgetakoan gertatu zitzaion bezala, txapela lortzeko gutxi falta izan zitzaion antzuolarrari, baina, ezin izan zuen. Iturriotz nafarrak irabazi zion partidua, 22 eta 18. Gogorra izan zen neurketa, eta zorte txarra ere izan zuen Aitorrek.

Denboraldia aurrera doa, eta Oñatiko eta Getariako binakako txapelketatan dihar-du orain Mendizabalek.



Udaltzaina bizikletan

Martitzenetik, lanerako garraiobide berria dauka Miren Urriategi udaltzainak: bizikletaz egingo du aurrerantzean eguneroko gutunak eta jakinarazpenen banaketa. Uda parterako garraiobide aproposa du Mirenek bizikleta; kalem gora eta behera oinez ibilita baino askoz azkarrago egingo du bere lana. Gainera, ez du kutsadurarik eragingo; bide batez, Udalak ingurugiroarekiko errespetu lezioa eman digu herritarrei, batez ere, kontuan hartuta Antzuolako herritar gehienok automobila hartzeko dugun gehiegizko erraztasuna./A.I.

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA



Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko uztailaren 22a / 236. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Urtebetean 75.000 euro inbertitu dituzte Espaloia Kafe Antzokian kultur ekintzetan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Espaloia Kafe Antzokia zabaldu zutenetik urtebete pasa denean, bertako arduradunek urtebeteko jardunean izandako esperientzia azaldu dute. Bide batez, datorren denboraldirako antolatu dituzten hainbat ekitaldiren berri ere eman dute.

Herriko eta ibarreko jendearekin konpartitu nahi izan dute Espaloioek urtebeteko balantzea.

Hasiberriak izanik, hainbat hanka-sartze egin dituztela aitortu dute: "Horrelako proiektu batean berriak gara asko. Horrek eragin ditu hanka-sartzeak; baina pozak gehiago izan dira eta horiek estali dituzte akatsak", esan du Iban Arantzabalek.

ARTISTAK ETA IKUSLEAK

Artista asko eta onak pasa dira Espaloitik. "Gustura gaude artistei emandako tratutik jaso dugun erantzunarekin. Gainera, aretoa ongi egokituta dagoela esaten digute", diote antolatzaileek.

Ikusleei dagokienez, 13.000 eta 15.000 bitartean izan dira ordainpeko ekitaldiak ikustera joan direnak. "Danbakak gazte jendea ekarri du eta hainbat antzerkitan aretoa bete egin da".



Gorka Arizmendiarieta Espaloiko langilea eta Josu De Vega eta Iban Arantzabal kultura taldeko kideak.

Umeek ere badute lekua Espaloian eta aurrerantzean ere hala izatea nahi dute. "Umeak etorkizuna izanik mimatu egin nahi genituzke. Euren txotxongiloak, ikastaroak... gertatuko ditugu eta zinema emanaldiekin ere jarraituko dugu".

Urtebetean kultura ekintzetan 75.000 euro inbertitu dituzte Espaloian; honetaz gain, Udalarekin zein beste zenbait taldeekin elkarlanean antolatutako ekintzak daude. "Urtebetean 31.000 euroko zuloa egin dugu, baina tabernak eta jatetxeak ematen

dituzten etekinekin estaltzen joango gara pixkanaka".

DENBORALDI BERRIRAKO EKINTZAK

Espaloiairen helburua da antolatu dituzten ekintzekin jendeak gozatzea. Horretarako, kudeaketa zorrotzagoa egingo dute, bai-

na kalitatea jaitsi gabe.

Dagoeneko gertatzen diren denboraldirako programazioa, eta hainbat antzerkiren berri eman du Josu De Vega kultura taldeko kideak.

Irailan, *Cocidito Madrileño* antzezlan ezagunarekin hasiko da denboraldia Espaloiak. Bestalde, Espaloiak izen handiko Yllana teatro konpainia kontratatu du, eta hark urrian 666 lana eskainiko du. Azaroan, Zanguango taldearen *Pan con pan* antzerkia egongo da ikusgai; Max antzerki saria eskuratu duena. Pirineos Jazz Orquestaren emanaldia ere izango da azaroan.

Hainbat konpainiak antzerki lan arrakastatsuak plazaratuko dituzte berriz; eta horietako batzuk Elgetara ekarriko dituzte: *Todo sobre Shakespeare, o casi* abenduan izango da Espaloian.

Urtarrilean dantza ikuskizuna izango da Kukai eta Ttanta-ka taldeen eskutik. Otsailean, Yllanakoak izango dira berriz *Olympiaff* lanarekin; eta martxoan Ttanta-ka *El florido* pertsil egongo da.

Apirilean, aurtengo arrakastaren ostean, berriz ere egin nahi dugu magia mostra. Eta azkenik, maiatzeko asteburuetarako, Udalarekin elkarlanean, kaleko ikuskizunak antolatu nahi ditugu.



Fo-fo-fo Ipintzan txapelkun

Ipintzako txapelketako garaikurra Elgetan da. Barikuan Tito's Getokuak taldea hasi zen irabazten; 20. minuturako bi gol sartu zituzten. Lehen zatia amaitu aurretik lehen gola egin zuen Fo-fo-fo taldeko Juaristik. Bigarren zatian Koldok jaurtitako penaltiak berdinketa ekarri zuen; eta partidua amaitzeko hamar minutu falta zirela Ormaetxeak sartu zuen elgetarren hirugarrena. Azken emaitza, beraz, 3-2. /I.A.

LABUR

Aldaketak Eibarrerako autobus ordutegian

Uztailaren 24tik irailaren 4ra bitartean astegunetan ez da Eibar-Elgeta-Eibar autobus zerbitzurik egongo. Domeketan eta jaiegunetan 12:00etan eta 19:00etan irtengo dira autobusak Eibartik; Elgetatik 13:00etan eta 19:30ean. Irailaren 5etik aurrera domeketako ordutegia bera izango da. Aste barruan 13:30ean eta 20:20an irtengo dira Eibarren, Elgetan 14:00etan eta 20:50ean.

APARKALEKUAK

Domingo Iturbe kalean eta Berraondokuan aparkalekuetako marrak margotuko dituzte

I.A.
Oraindik data zehaztu gabe badago ere, abuztuan edo irailean aparkalekuetako marrak margotuko dituztela jakinarazi digute Udaletik. Herriko bi gunetan egingo dituzte lanok: Domingo Iturbe kalean eta Berraondokuan, hain zuzen ere.

Domingo Iturbe kalean, gaur egun, ibilgailuak aparkatzen dituzten arren, gidariek ez dituzte modu egokian lagatzen, bakoitzak nahi duen bezala eta gainontzeko autoak errespetatu gabe baizik. Horrek kexak ekarri ditu kaleko bizilagunen partetik.

Behin marrak margotu ostean, Udaletik espero dute ibilgailuak behar bezala aparkatzea.

APARKATZEKO GUNEAK APROBETXATUZ
Bestalde, Berraondokuan, atzeko kaletik industria gunearen gaineko garajeetara doan bidean, ibilgailuak noizean behin baino ez dituzte aparkatzen.

Udalak, marrak margotuta, lortu nahi du gidariek bertan aparkatzeko aukera izatea, orain arte horretarako erabiltzen ez zen gunea bat aprobetxatuz.

Oraindik ez dakite lan horiek noiz egingo dituzten; baina abuztuan edo irailean izango da. Autoa bertan lagata dutenei jakinaraziko zaie ken dezaten.




Autoak noizean behin baino ez ziren aparkatzen orain arte Berraondokuako zubian.

LABUR

GSR-ren esku Herri Zentroa eta etxez etxe zerbizua

Udalak erabaki du enpresa bakarrak kudeatzea hemen dik aurrera Herri Zentroa eta etxez etxe laguntza zerbizua. GSR (Gestion de Servicios Residenciales) Arrasateko enpresa arduratzen da uztailearen 1a ezker lan horietaz, eta oraingoz urtebeterako kontratua sinatu du Udalarekin. Herri zentroan adineko bost pertsona daude eta hiru lagunek jarduten dute eurekin lanean. Etxez etxe laguntza, berriz, bost familiak eskatu dute eta bi lagunek dihardute haiekin lanean. Udaletik esan digutenez, urtean edozein unetan egin daiteke eskaria bai Herri Zentrorako eta baita etxe-laguntza jasotzeko.

JAIK



Joxe Agirrek Millan Telleriarekin jardungo du bertsotan astelehenean.

Santixao jaiak asteburuan Goimendin

I.A.
Santiago eguna da astelehenean, uztailearen 25ean. Hori dela eta, santuaren omenez jaiak ospatuko dituzte Goimendi auzoan. Domeka gauean hasi eta astelehenean barrena hainbat ekitaldi izango dira: meza, herri kirolak, bertsolariak eta dantzaldiak, hain zuzen ere.

Asteburu luzea dugu aurrean, astelehena, uztaileak 25, Santiago eguna, jai eguna baita. Goimendi auzoan ospakizunik ez da faltako santuaren omenez.

Domekan, 21:30ean jaiak hasi eta berakatz zopa jateko aukera izango da; eta ondoren Jon Ostoa eta Unai Andonegi trikitilariarekin erromeria.

SANTIAGO EGUNA

Astelehenean, uztailearen 25ean, 11:00etarako meza dago iragarrita; eta ostean, Kezka taldearen dantza emanaldia. 12:00etan herri kirolak: Harkaitz Egaña Mintxeta harri jasotzen eta Fausto Mugertza eta Barberena aizkoran.

Bertsolariak eta trikitilariak izango dira gero: Agirre eta Telleria bertsotan eta Harkaitz Allur eta Lutxurdixo trikitiarekin.

Bazkalostean, 17:30ean, dantza solte erakustaldia egongo da eta bertsolariak berriz jardungo dute gero. 18:30ean nahi duenak bola jokoan jarduteko aukera izango du.

Eguna amaitzeko, gauerdia arteko erromeria izango da Harkaitz Allur eta Lutxurdixoren trikitixak girotuta.

KIROLAK

Pilotalekua itxita egongo da berritze lanak amaitu bitartean

I.A.
Martitzena ezker itxita dago Udal Pilotalekua. Berritze lanak aurki hasiko dituzte, eta guztia prest izan nahi dute. Ohiko erabiltzaileek zortzi edo bederatzi hilabetez ezingo dute bertan jokatu. Gaur egun, hamar lagunek dute izena emanda ordu zehatzetan pilotalekuan jardun ahal izateko.

GAINONTZEKO INSTALAZIOAK

Kiroldegiko gainontzeko instalazioek oraingoz zabalik jarraituko dute. Berritze lanek aurrera egin ahala, ordea, itxi egin beharko dituzte eta kiroldegiaren erabiltzaileei jakinaraziko diete noiz arte egongo diren itxita.



Besteak beste ate berria egingo dute pilotalekuko horma batean.



Informazio panelak Aixolan

Kirola egiteko edo paseatzeko bideen berri emanez, bi panel ipini dituzte Aixolako urtegiaren inguruan. Bat Elgetatik joan eta Aixolara iristean ikus daiteke, eta bestea urtegi bidean goazela. Hirugarren bat kiroldegi ondoan ipiniko dute, baina berritze lanak amaitutakoan izango da hori. Foru Aldunditik 4.800 euro inguruko dirulaguntza jaso du Udalak panel horiek ipintzeko. /I.A.

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 22a / 16. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: S5482/05

Natur ibilbide gidatuak, udako beste aukera bat

OIHANA ELORTZA

Abuztuaren 14a bitartean natur ibilbide gidatuak egingo dituzte. Zortzi ibilaldi antolatu dituzte eta Natur Eskolara zein Turismo Bulegora deitu behar da interesa edukiz gero. Orain artekoetan jende askok hartu du parte. Herrikoendako zein kanpokoendako dira.

Orain arteko ibilaldietara jende asko joan da, lehendabizikora batez ere, Orkatzategiko hegaztien kolonia ikusteko irteerara, hain zuzen ere. Herriko jende asko tartean. Oporrak hartu ahalaz, baina, kanpotik datozen turistak gehiago izaten dira taldean oñatiarrak baino. Urtero gertatzen ei da hori eta aurten ere jorra hori errepikatu egingo dela uste dute Natur Eskolako kideek.

Uztailaren 2an egin zuten lehendabiziko natur ibilbide gidatua eta abuztuaren erdira arte, 14a arte, egingo dituzte. Oñatiko inguruak, mitologia, auzuneak, lanbideak eta etnografia ezagutzeko zortzi ibilbide antolatu dituzte guztira Natur Eskolak eta Turismo Bulegoak, eta toki horietara deitu behar da apuntatzeko.

ABUZTURAKO IBILBIDEAK

Lau ordu inguruak dira ibilbide batzuk eta egun osoak beste batzuk. Natur Eskolako kide-



Orkatzategiko hegazti kolonietara egindako irteera.

NATUR ESKOLA

Ibilbideak lau ordukoak zein egun osokoak dira eta Natur Eskolako kideek egiten dituzte gidari lanak

ek egiten dituzte gidari lanak. Bihar, zapatua, adibidez, Oñatiko basoa eta ikazkinen bizimodua ezagutzeko irteera gidatuko dute eta domekan, Aizkorri mendikateko artzaintza guneak eta megalitoak ikusteko ibilaldia.

Araotz, uraren ibilbidea, Arantzazuko erreka eta kobazuloak eta Degurixa inguruak ere ezagutzeko dituzte abuztuan.

IRAKASKUNTZA

Plan estrategikoa zehaztu du Eteok

O.E.

2005-2008 bitarteko erronka estrategikoa berridatzi eta zehaztu ditu Eteok. Estrategia hori diseinatuta, Eteok nahi du aurrerantzean erakundea izatea oinarria pertsonen etengabeko garapen pertsonal eta profesionalerako. Hori lortzeko, hiru unitatetan banatu dute Eteoko organigrama eta beste lau departamentu ere egongo dira taldeen sorrera eta profesionalen elkar-kidetzaz errazteko. Zuzendaritza batzordeak bezeroen zerbitzura jarriko du erakundea kudeatzeko duen edozein egitura antolaketa.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Hain zuzen ere, bost gizonen eta bi emakumeen osatzen dute gaur egungo Eteoko zuzendaritza batzordea: Lander Beloki, dekanoa; Jose Luis Abaunz, unibertsitate eta enpresa harremanetarako zuzendaria; Begoña Ugarte, zuzendari akademikoa; Lurdo Ugarte, ikerkuntza eta hirugarrenen zikloko zuzendaria; Mariela Murua, ekonomia eta finantzarako departamentuko zuzendaria; Aitor Urtzelai, estrategia antolakuntza eta ekintza berrien sailko zuzendaria; eta Mikel Mesonero, marketin departamentuko zuzendaria.



Zuzendaritza batzordeko kideak.

KALEAN 2005

Gaztelekuak kalean egingo ditu udako kontzertuak aurten ere

O.E.

Aurten ere Oñatiko kale eta plazetan egingo ditu udako kontzertuak Gaztelekuak. Hamargarren aldia da aurtengoa. KALEAN 2005 egitarauak hip-hop festa, antzerkia, Pirinioetako doinuak eta surf musika festa eskaintzen ditu, besteak beste.

ZAPATUAN LEHENENGO KONZERTUA

Bihar, zapatua, bertan da KALEAN 2005 programako lehen kontzertua. Oñatiko kaleak beteko ditu zapatuko taldeak. Pirinio aldean dagoen Boltaña eskualdeko musika talde bat dator bihar. 15 musikari inguruk osatzen dute taldea eta gitarra, bandurria, eskuko soinu eta halako instru-

mentuekin kaleetan gora eta behera ibiliko dira.

Datorren astean, uztailaren 30ean, hip-hop festa egingo dute San Anton plazan, Ziburu, Iruñea eta Irungo hiru taldek. Abuztuan, berriz, 21ean fusio musika entzungo da kaleetan eta 28an, *Pisutxoa* izeneko kale antzerkia Trapu Zaharra taldearekin.

LABUR

Danbor joleak eta dantzariak behar dituzte San Migel jaietako danborradarako

Dantzariak eta danbor joleak behar dituzte aurtengo danborradarako. Dantzariak 1998. urtean jaietako neska-mutilak izan behar dute eta danbor joleak, 18 urtetik gorakoak. Apuntatzeko epea zabalik dago uztailaren 28a arte Gaztelekuan eta kultura etxean.

Ezohiko bilera egingo du Txanda dendarien elkarteak datorren egunean

Txandak ezohiko bilera egingo du uztailaren 28an, Santa Anan. Lehen deialdia 20:00etan eta bigarrena 20:30ean. Urteko balantzea egin eta ekintzen egutegia zehaztuko dute. Delia Lumbrerasi tokatu zaio asteburua baserri turismo batean Txandaren zozketan.

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK




- Arotz lanak orokorrean

- Horma armairuak

- Altzariak

- Leihoak

- Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ÉRAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxe: 943 76 08 04

BEDELKARREN UDAKO ZOZKETA

Lehenengo saria **500** euro, bigarrena **300** euro
eta hirugarrena **200** euro



44.631 zenbakia
Ez da irabazlerik agertu
Kabutzia arraindegiak emana



73.473 zenbakia
Amaia Maiora
Euskalduna Tabernak emana



24.462 zenbakia
Pili Goenaga
Jakina dendak emana



Zorionak!



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK
EGUREN
Iraila 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK
JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA
AIERDI AHOLKULARITZA
Artekalea 1. 943 76 03 50
TBG AHOLKULARITZA
Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK
RAFAEL ARANBURU
Irizar 5. 943 76 10 81
BERNARDINO MAIZTEGI
Irizar 5. 943 76 10 81
JUAN ANTONIO SIERRA
Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK
JESUS LASKURAIN PEREZ
Zurradero 4. 943 76 53 53